

## 4. FASEA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

### AURKEZPENA/ JUSTIFIKAZIOA

Planifikazio-fasean hurrengo ikasturterako helburuak aukeratu ditugu eta helburu horiek lortzeko ekintzak ere diseinatu ditugu. Orain jarraipena eta ebaluazioa egin behar dira.

Horretarako, garatu beharreko ekintzen planifikazioan definituriko lorpen-adierazleetatik abiatuz eta prozesua kontuan izanda, proposaturiko helburuen lorpen-maila baloratuko dugu.

Ingarguneak eta lorpenak identifikatu eta sendotuko ditugu. Horietan oinarriturik, ondo begiratu behar da zer geratu den egin gabe, zertan hobetu daitekeen eta zeintzuk diren beharrizan berriak. Aspektu horiek guztiek adieraziko digute geure elkarbizitzaren hobekuntza-prozesuari jarraipena nondik nora eman.

Berrikuntza-prozesuetan ebaluazioa funtsezkoa da, berez. Elkarbizitza positiboaren kultura hori lortzeko bidean, ongi begiratu behar zaie harremanetan gertatzen diren aldaketei eta sortzen diren beharrizanei, gure eguneroko jardunak ikuspegi kritiko batetik aztertuta eta sormena erabilita, elkarbizitzaren hobekuntza-prozesuak sustatzen jarraitu ahal izateko.

JARRAIPEN ETA EBALUAZIOAREN fase honek jarduera bakarra proposatzen du:

→ PLANIFIKAZIOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Hauxe da jarraitu beharreko bidea:

10. JARDUERA: PLANIFIKAZIOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

8. jardueraren informazioa berreskuratu: aukeraturiko helburuak eta lorpen-adierazleak. Horietatik abiaturik jarraipena eta ebaluazioa egingo duten pertsonak aukeratu behar dira; era berean, balorazioan zein pertsona hartuko diren kontuan eta zein tresna erabiliko diren.

Datu-bilketa, azken balorazioa, hobekuntza-proposamenak eta/edo beharrizan berriak direla-eta, ekintzak martxan jarri ahala joango dira egiten.

Aipaturiko jardueraz gain, fasearen bukaeran 4. FASEAREN AZKEN EBALUAKETA proposatzen da.

### HELBURUAK

1. Ebaluazioari bere baitan duen balioa eman, berrikuntza-prozesuak hobetzeko orduan duen izaera hezigarri eta orientatzailea dela eta.
2. Informazioa jasotzeko eta igortzeko modua sistematizatu, ikastetxearen errealitatetik eta pertsonen beharrizanetatik gertu egoteko.
3. Jarduerak baloratu eta hobetu, eskuratzeko modukoak, aplikagarriak eta eraginkorrak izan daitezen. Behar denean ekintza berriak proposatu.
4. Ebaluaketa egin eta sistematizazioa errazteko tresna sortu

## EDUKIAK

1. EBALUAZIO SISTEMATIKOA BERRIKUNTZA-PROZESUETAN
2. JARRRAIPENA ETA LAGUNTZA HOBEKUNTZA-PROZESUETAN
3. KOORDINAZIOA ETA FEED-BACK EDO ATZERAELIKADURA TALDE-LANETAN
4. ALDAKETA-POSIBILITATEAK: MALGUTASUNA, ERREALITATEAREKIKO ADAPTAZIOA ETA HOBEKUNTZA

## ORIENTABIDE METODOLOGIKO OROKORRAK

- Fase honetan interesgarria da dinamizatzaileak 5. BALIABIDEA ondo ezagutzea: DIAGNOSTIKO-EREMUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ZENBAIT PROPOSAMEN, HORIEN ANALISIA - EBALUAZIOA ERRAZTEKO. Bertan, zenbait lorpen-maila adierazle aurkitu daitezke, horrela aukeraturiko helburuen lorpen-maila zehaztu ahal izateko.  
  
Baliabide hau baliagarria da hasierako ebaluaketa, prozesuala eta finala egiteko.
- Fase honetan garrantzitsua da pertsona guztiak jakitun egon daitezen: aukeraturiko helburuak, proposaturiko ekintzak, arduradunak, lorpen-adierazleak, lorpen-mailak, prestakuntza-plana...; era berean, horretan partaide izan direla sentitu behar dute, horrek ekarriko baitu hurrengo ikasturterako Elkarbizitza Planaren arrakasta.
- Sektore bakoitzak bere aldetik egingo du bateratze-lana, bukaeran beste estamentuekin ekarpenak konpartituz.
- Ikuspegi osoagoa lortu nahi izanez gero, interesgarria da emakumeen ekarpenak alde batetik biltzea eta gizonenak bestetik. Informazio hori oso baliagarri izango da planifikatzeko eta aukera- zein tratu-berdintasuna bermatzen duten ikasketa-egoerak programatzeko ere bai, batzuen eta besteen sinesmenak eta pertzepzioak ez direlako berdinak izaten. Horrez gain, justizia eta ekitatea oinarri duten harreman demokratikoak eraikitzen ere lagunduko du. Horrela egitea erabakiz gero, kontuan eduki bi kolektiboak bereizi behar direla, taldeak eratzera, emaitzak biltzerakoan eta abar.
- Jarduera bakoitza bukatutakoan, ebaluaketa bat proposatzen da, erraz egiteko modukoa. Dinamizatzaileak jasoko ditu ebaluaketaren emaitzak dagokion AKTAN; horrela, taldeari errazago aurkeztuko zaio lana hurrengo saioan, eta proiektuaren memoriarako ere erabilgarri izango da.
- SAIOA DINAMIZATZEKO OINARRIZKO MATERIALAK atalean, saioa aurrera eramane baino lehen jakiteko modukoak diren informazioak agertuko dira. Horrez gain, norbaitek interesa erakutsiz gero, errefortzu gisa ere erabili daitezke.
- SAKONTZEKO MATERIALAK atalean, landutako gaien inguruan sakontzeko materialak agertuko dira.
- Proiektua hedatuko da eta hezkuntza-komunitate osoaren informazio eta partizipazioa bermatzeko mekanismoak ezarriko dira.

# Urteko Elkarbizitza plana (UEP) eratzeko gida

## 4.FASEAREN GARAPENA

10.JARDUE RA	Denboralizazioa	Jarraibideak	Baliabideak	Erremintak
<b>GAKOAK:</b> → Oraingoan ere, taldeari marko orokorrean lehenetsiriko helburuen jarraipena eta ebaluazioan kolaboratzen laguntzeko asmoz, beharrezkoa da Elkarbizitza Behatokiak, dinamizatzaileak edo aukeraturiko pertsonak aldeztatik 10. ERREMINTA lantzea kolektibo osoari aurkezteko. Saioan oso garrantzitsua da pertsona guztiek laboraturikoa ezagutzea eta horren gainean ekarpenak egitea lortzea. → FOTOKOPIAK: 1 talde txiki bakoitzeko (gardenkian) <b>10. ERREMINTA:</b> PLANIFIKAZIOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA, eta <b>5 BALIABIDEA:</b> <b>DIAGNOSTIKO-EREMUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ZENBAIT PROPOSAMEN, HORIEN ANALISIA - EBALUAZIOA ERRAZTEKO;</b> talde handirako 1 (gardenkian) <b>10. ERREMINTA:</b> PLANIFIKAZIOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA, eta partaide bakoitzarentzat (paperean) 1: <b>8a erreminta Urteko helburuak planifikatzen</b> , <b>9a erreminta: "Beharrak detektatzen. Prestakuntza - ekintza plana"</b> , <b>Taldearen Prestakuntza-Ekintza Plana</b> , eta <b>10. ERREMINTA:</b> PLANIFIKAZIOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA beteta. → MATERIALAK: gardenki-errotuladoreak, proiektorea eta bi koloreko post-itak.				
JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	<p style="text-align: center;"><b>Guztira:</b> <b>60min.</b></p> <p style="text-align: center;">10min</p> <p style="text-align: center;">.....</p> <p style="text-align: center;"><b>Elkarbizitza Behatokia, dinamizatzaileak edo izendatutakoak</b></p> <p style="text-align: center;">Zehaztu gabeko denbora</p> <p style="text-align: center;">.....</p> <p style="text-align: center;"><b>BAKARKAKO LANA:</b></p> <p style="text-align: center;">5 min</p> <p style="text-align: center;">.....</p> <p style="text-align: center;"><b>TALDE TXIKIKO LANA:</b></p> <p style="text-align: center;">10 min.</p> <p style="text-align: center;">.....</p> <p style="text-align: center;"><b>TALDE HANDIKO LANA</b> 15 min.</p> <p style="text-align: center;">.....</p> <p style="text-align: center;"><b>BAKARKAKO LANA:</b></p> <p style="text-align: center;">5 min</p>	<p>Dinamizatzaileak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>→ 3. fasearen ebaluazioa komentatu</li> <li>→ Fasearen aurkezpena</li> </ul> <p>.....</p> <p>Adostutako helburuen jarraipena eta ebaluaziorako proposamenak egin (10 erreminta ikusi).</p> <p>.....</p> <p>Partaide bakoitzari eman kopia bana:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>→ 8a. eta 9a. erremintak (3. FASEA)</li> <li>→ Lan-taldeak eginiko proposamena (<i>datuak, balorazioa eta hobekuntzarako-orientazioak atalak izan ezik</i>)</li> </ul> <p>Kide bakoitzak erremintak aztertuko ditu.</p> <p>.....</p> <p>Talde bakoitzari kopia bana pasa:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>→ 5. baliabidea: DIAGNOSTIKO-EREMUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ZENBAIT PROPOSAMEN, HORIEN ANALISIA - EBALUAZIOA ERRAZTEKO</li> <li>→ 10. erreminta bete gabe</li> </ul> <p>Taldeak sorturiko proposamena eztabaidatu eta hobekuntza-proposamenak egin.</p> <p>.....</p> <p>Bateratze-lana.</p> <p>.....</p> <p style="text-align: center;"><b><u>JARDUERAREN EBALUAZIOA</u></b></p> <p>Post-it batean partaide bakoitzak osatu esaldi hauek:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>→ JARDUERA laburbiltzen duen hitz-gakoa.....</li> <li>→ JARDUERA baliagarria izan da.....</li> </ul> <p style="text-align: center;"><b><i>Oharra: gizonen eta emakumeen ebaluazioak KOLORE EZBERDINEKIN, banaka aztertu ahal izateko.</i></b> (Dinamizatzaileak ebaluazioa jasoko du, jarduera bakoitzaren dagokion AKTA EREDUAN)</p>	<p>.....</p> <p style="text-align: center;"><b><u>5.baliabidea.</u></b> "DIAGNOSTIKO-EREMUAEN PROPOSAMENAK. ANALISIA ETA EBALUAZIOA</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p style="text-align: center;"><b><u>10-erreminta:</u></b> "PLANIFIKAZIOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA"</p> <p>.....</p> <p style="text-align: center;"><b><u>8a,9a eta 10. erremintak beteta</u></b></p> <p style="text-align: center;"><b><u>10.erreminta</u></b></p> <p>.....</p> <p style="text-align: center;"><b><u>10.erreminta</u></b></p> <p>.....</p> <p style="text-align: center;"><b><u>10.erreminta</u></b></p> <p>.....</p> <p style="text-align: center;">JARDUERA REN AKTA</p>

## Urteko Elkarbizitza plana (UEP) eratzeke gida

4. FASEAREN BUKAERAKO EBALUAZIOA	DENBORALIZAZIOA	JARRAIBIDEAK	BALIABIDEAK	ERREMINTAK
<p>→ <b>GAKOAK</b></p> <p>→ Fasea bukatu bezain laster ebaluatzea komeni da, partaideen sentrazio eta pertzepzioak jaso ahal izateko.</p> <p>→ <b>FOTOKOPIAK:</b> "3. FASEAREN AZKEN ebaluazioa" galdetegiaren fotokopia bana partaide bakoitzari.</p>				
4. FASEAREN AZKEN-EBALUAZIOA: JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	Guztira: 15 min.	Partaide bakoitzari "4. FASEAREN ebaluazioa" galdetegia banandu		<b><u>GALDETEGIA</u></b> "4. FASEAREN AZKEN EBALUAZIOA"

### FASEA DINAMIZATZEKO OINARRIZKO LAGUNTZA-MATERIALAK

- OINARRIZKO MATERIALA1: COMO UN ESPEJO(SANTOS GUERRA)

### SAKONTZEKO MATERIAL

- SAKONTZEKO MATERIALA 1: "El papel de evaluación en la mejora escolar.(Daniel L. Stufflebeam)
- SAKONTZEKO MATERIALA 2: "La evaluación institucional en la sociedad del conocimiento" (Nélida zaitegi).
- SAKONTZEKO MATERIALA 3: "La perspectiva de la evaluación basada en los centros docentes" (David Nero)

### BIBLIOGRAFÍA,WEB LOTURAK ETA BESTE BALIABIDEAK

#### LIBURUAK:

- J.RULL,N.ZAITEGI, "autoevaluación del centro educativo. Taller de evaluación: modelo de gestión GE-Rs", Gobierno Vasco,2003,Gasteiz. (Ikastetxe publiko eta Berritzegune guztietan dago)
- T. BOOTH, M. AINSCOW, "Hezkuntza inklusiboa ebaluatzeke eta hobetzeko gida. Eskoletako ikaskuntza eta partaidetza garatuz" Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco. (Ikastetxe publiko eta Berritzegune guztietan dago)